


Noaia!!

www.noaia.com



Eguberriak
ekitaldiz beteta datoz



Artzabal,
Gure Pakearen egoitza berria

Otar-Goxo
E l i k a g a i a k

Gabonetako berezitasunak
eta otarrak prezio ezin hobean



Harategiko berezitasunak

Txahal azpizuna
Behi azpizuna
Esneko arkumea
Txerrikumea
Antxumea
Kapoia
Pularda, ehiza,
rosbeef, entrekota (1kg)...

Urdaitegiko berezitasunak

Foie frexkoa
Té eta Jengibre dun foie
Ahate konfita,
Mikuít
Txatka naturala
izozkina
Bieira betea
Budinak...

Fruta denda berezitasunak

Ananak
Gaztainak
Mahatsa
Orejoiak
Kiwiak
Bertako barazkiak
Fruten selekzio paregabea



Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil



Aseguru Artekaritza

Eskatu aurrekontua

- autoak
- etxeak
- bizi-aseguruak
- komunitateak
- merkataritza-denak
- enpresak
- pentsio planak

Telf: 943 37 11 18 telf/fax: 943 37 19 97 Plaza Uzturre, 8 Lasarte-Oria pikabea@infonegocio.com J-0078EUS

Albisteak iruditan !!

Agur, parroki ondoko kioskoari

Pasa den urria amaieratik ez da egunkaririk saltzen Etxebeste kalean, parroki ondoan kokatuta zegoen kioskoan. Ordutik postua itxita dago eta Udalaren esku. Kalea libre uztea zen Udalaren asmoa eta horregatik kendu dute kioskoa. Udal ondasunen errol-dan kioskoari baja ematea aho batez onartu zuen udalbatzak azken ezohiko osoko bilkuran.

Argazkiari begira, kaleari zerbait falta zaiola dirudi, ez al da hala?



KALEA LIBRE UZTEA IZAN DA UDALAREN ASMOA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publikizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

ARTZABAL, ZAHAR ETXE BERRIA _____ 8. OR.

BUS-TAXI ZERBITZUAREN BALANTZEA _____ 10. OR.

UDALBATZA PLENOAREN ERABAKIAK _____ 12. OR.



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ALIPROX

Kale Nagusia 10

☎ 943 361 182
USURBIL



Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42



Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO



AITOR LANDALUZE

Egunon "Konsti"!

Aspaldian, literatur tertuli batean pertsonaia literario egokiez mintzatzen ari ziren. Beste batzuen artean honako honetaz hitz-egin zuten, pertsonaia amnesikoa baino joko gehiago eman zezakeela koman epe luzez egondako pertsona batek. Krisi betean egonda, eta ez naiz ekonomia globalaren krisi mundialaz ari, tertulia horretan aipatutakoak gogoratu ditut. Pertsonaia horrengana jo dut eta nire lagun "Konsti" ekartzea erabaki dut.

"Konsti"-k 1978ko abenduaren 6an koman egotea erabaki zuen eta ondo konturatu zaretenez hortik datorkio bere ezizena. Medikuek oso argi ez zuten arren "coma autoinducida" ezizenez bataiatu zuten bere gaitza. Egia esateko, gure lagun hau munduarekin nazkatu zen eta gauzak hobetzen ez ziren bitartean ez esnatzeko eskatu zigun. Ohean sartu zen, historikoa omen den egun horretan eta lotan jarraitu du harrezkero. Guk noski bere esana bete genuen eta 30 urte luze hauetan ez dugu motibo nahikorik topatu bera esnatzeko. Orain ordean, bera esnatu da, nonbaiten postura aldaketa edota kuriositateak edo auskalo zer, esnatu zaigu. Bisita egiteko eta egunkari bat eramateko eskatu zidan. Beraz egunkari bat hartu eta beregana jo nuen. Nire aldaketa fisikoaz hitz egin eta gero egunkaria luzatu nion, egia esaten badizuet, beldur eta mesfidantza osoz eskaini nion jakin banekien ez zuela inongo motiborik aurkituko esna jarraitzeko.

Lehenengo orrialdean deigarri egin zitzaiona koloreak izan ziren, poztu zuen eta egunkaria orain dela 30 urteko-

ak baino erakargarriagoa suertatu zitzaion. Barrenera jo zuen, jakinik mamia bertan azalduko zela. Aurreneko atala politika izan zen. Interes handiarekin, mantso eta bigarren irakurketa baliatuz ekin zion irakurketari. Bertan topatutakoak ez zuten gure laguna animatu. Badakizue, aukera politiko ilegalizatuak, 700 presotik gora kartzeletan, torturak gazteei eta ez hain gazteei ere; banaketa, ezkerren, abertzaleen artean, lurraldean,... Botereetsuen diskurtso hipokritak, hilketa politikoak, kondenak eta ez kondenak, kromo trukeak,... "Um" etsitu bat besterik ez zuen esan. Niri begiratu gabe jarraitu zuen. Hurrena mundua. Txirotasuna, Estatu Batuetako indarkeri mundiala, kapitalismoaren erresuma,... Beste "Um" etsitu bat. Ondoren ekonomia; letra larriz, krisia; enpresen ixtea, langabeziaren igoera, IPC-a, lanpostuetan hildakoak eta abarrak... Beste "Um" etsitua. Kulturara pasa zen gero, euskaraz bai, bizi eta abar... hizkuntza ereduaren politika,... Oraindik borrokan? Galdetu zuen erantzunik espero gabe. Kiroletara jo behar zuenean, errealtate amorratua izanik, ez ikusteko eskatu nion. Badazpada kasu egin zidan.

Egunkaria itxi zuen, leihotik zehar begiratu galdia eta asko pentsatu eta gero honakoa galdetu zidan:

-Franco berpiztu al da ba?

Ez nuen erantzunik topatu, "Ez" sinple eta gezurti itxura zuen bat besterik ez.

-Beno ba badakizu, zeozer interesgarria pasatzean esnatuko nauzu ezta?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Etorri berriak, arrotz sentitu ez daitezen

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAk, etorri berriei (etorkinei) harrera egiteko informazioa jarri du eskura Usurbilen, eta baita Mankomunitatean bilduta dauden 55 udalerrietan ere. Eskuorrien bidez, Euskal Herrira datozenek eman beharreko pausoen eta dauzkaten zerbitzuen berri jasoko dute.


Eskuorri hauetan etorri berriei ongi-etorria bi hizkuntzetan egiten zaie. Euskaraz eta bigarren hizkuntza batean: errumanieraz, frantsesez, ingelesez, portugesez, arabieraz eta gaztelaraz (Ameriketara erabiltzen den gaztelaraz, zehatzago esanda). Etorri berriari azaltzen zaio Euskal Herriko berezko hizkuntza euskara dela, eta ikasteko auke-

rak dituela, horretarako bere ohiturak, hizkuntzak eta kultura alde batera utzi gabe.

INFORMAZIO PRAKTIKOA

"Erroldatzea, gizarte zerbitzua, osasun txartela, garraioa... eta antzeko informazioaren berri ematen zaie etorri berriei"

Horrez gain, gai hauei buruzko informazioa ematen zaie beraien jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz: erroldatzea, gizarte zerbitzua, zerbitzu juridikoa, osasun txartela, hezkuntza, etxebizitza, garraioa eta lana. Azkenik herriko hainbat telefono interesgarri ere jasotzen ditu eskuorriak.



HARRERA EGITEKO ESKUORRIAK
EUSKARAZ ETA SEI HIZKUNTZATAN
ATERA DITU USURBILGO UDALAK.

Babarrun onena Aginagakoa eta sagardo onena Zubietakoa, San Tomas azokan

Goizean euriak San Tomas azoka zapuztuko zuela zirudien. Baina ostarteak zabaldu eta giro ederrean egin ziren babarrun eta sagardo lehiaketak. Babarrun lehiaketan, Aginagako aleak izan ziren epaimahaikideentzat estimatuenak. Antonio Izagirre Aldapa baserrikoa izan zen txapela jantzi zuena. Sagardo lehiaketan, ordea, zubietarrak nagusi. Joxe Manuel Lizarralde Etxetxo baserrikoak eraman zuen lehen saria.



SAGARDOAN JOXE MANUEL LIZARRALDE ETXETXOKOA IZAN ZEN NAGUSI
ETA BABARRUN LEHIAKETAN, ANTONIO IZAGIRRE ALDAPAKOA.

Babarrun eta sagardo lehiaketa bukatu gabe zegoela hasi zen aizkora txapelketa eta, horren ondorioz, beste batzuetan baino jende gutxiago izan zen frontoian egin ohi den sari banaketan.

Babarrun lehiaketan, hauek izan ziren lehen sarituak:

1. Antonio Izagirre, Aldapa baserria.
2. Idoia Orbegozo, Galdagorri baserria.
3. Migel Arrastoa, Kalezar.

Sagardo lehiaketan, aldiz, Aginagakoa nagusi:

1. Joxe Manuel Lizarralde, Etxetxo.
2. Pedro Aizpurua, Zugasti baserria.
3. Mikel Rekondo, Ibindos baserria.

Postu ugari azoka egunean

Usurbilgo presoen alde, talo asko saldu zituzten San Tomas azokan jarri zuten

postuan. Udarregiko ikasleek ere lan dexente izan zuten txistorra saltzen. Horretaz aparte, Atez ateko informazioa zabaltzeko postu bat ere jarri zen Sutegi parean. Eta baita Kilometroak eta Korrikaren aldeko salmenta-puntuak ere.

Nola ez, apartekoa izan zen Sagardoaren Lagunek, Aitzagakoek zein NOAUA!ko kideek egindako ahalegina.

Ikusmin handia Aizkolarari Txapelketan

Euriaren beldur, Usurbilgo Aizkora Txapelketa Askatasuna plazan egin zen. Jendetza bildu zen plazako aterpe inguruan eta horri esker giroa apartekoa izan zen txapelketa hasi eta bukatu arte. Xabier Dorronsoro izan zen nagusi Aitzagak antolatutako txapelketan, 14 minutu eta 10 segundoko denborarekin nagusitu zen. Giroa ikusita, datorren urtekoa prestatzen hasi beharko dute Aitzagakok.

Usurbilgo Aizkora Txapelketa

Xabier Dorronsoro,	14'10''
Juantxo Esnal, Arrilla I	15'09''
Urtzi Olasagasti	18'17''
Inaxio Pagola, Iruntxo	23'33''
Aritz Esnal, Arrilla II	27'08''



IKUSKIZUN APARTA ESKAINI ZUTEN AIZKOLARI GUZTIEK.

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Durangoko azoka



Jada abenduan sartu gara, baina oraindik ez dira gabonak iritsi. Hala ere abenduan badugu euskaldunok ekitaldi garrantzitsu bat eta ekitaldi honi buruz aipamen batzuk egitea bururatu zait, hain zuzen ere Durangoko Azokari buruz. Ez dakit badakizuen baina lehenengo Durangoko liburu eta disko Azoka 1965ean izan zen eta Gerediaga Elkartek sortu zuen. Azoka honen helburu nagusia garai zail haietan frankismoaren diktadurapeko urte haietan, Euskal Herrian zegoen liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea zen.

1974ra arte Durangoko Andra Mariko elizpean egiten omen zen, baina urte hartan arrazoi erlijiosoak aipatuta, Andra Mariko elizpean egitea galarazi eta Merkatu plazan egiteko aukera eskaini zuten. 1974-1996 bitartean, azoka merkatuan egin zen. 1996. urtetik Azoka Durangoko leku desberdinetan karpak jarriaz egiten omen zen, eta 2003. urtean hartu zuen gaur egun duen itxura, hain zuzen ere kokagune finkoa hartu baitzuen Durangon egin zuten erakinean.



Istorio hau alde batera utzita, pasa berri den aurtengo azokan 504 izenburu izendatu dira: liburuak 345, diskoak 64, aldizkariak 15, bideoak 15, CD-ROMak 15 eta bestelako 50. Bistan da izendapen ugari direla eta gure kulturaren garrantzi handikoak gainera. Beraz, gure esku dago urtez urte ohitura honekin jarraitzea.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

San Esteban Txiki Eguna



Agur bero bat guztiei Usurbilgo auzo ahonetatik! Konturatu ere egin gabe heldu zaigu abendua eta egun gutxi barru, iragandako urteari agur esan eta datorren urteari ongietorria eman beharko diogu.

Azkenaldiko elurteak direla eta inguruetak mendi tontorrek txuriz jantzi dira neguari ongietorria emanez.

Ospakizunez betetako hilabetea dugu abendua eta ospakizunak aipatzen hasita... hilaren 26an San Esteban Txiki Eguna ospatuko dugu auzoan. Goizeko hamaiketan meza izango dugu eta San Estebango ermitan eta meza amaitu ostean, jai batzordearen eskutik, hamaiketako goxoa dastatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Aurten ere ez da faltako haragi egosi, txorizo, salda bero eta ardo goxorik gurean.

Beraz, Jai Batzordearen eskutik, datorren ostiralean gure gerturatzeko gonbita luzatzen dizuegu.

Besterik gabe, eguberri zoriontsuak opa dizkizuet eta urte berri on guztiei! 2009 urteak irribarre eginaraz diezazuela!

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Auzokide berriak, laster

Atxegaldetik kaxko aldera oinez edo autoz joanda, azken aldi luzean han dugu gure zain norbait, gora edo behera joatea aholkatuko diguna, itxaroteko edota gelditu gabe aurrera pasatzeko eskatuko diguna. Etxe berrietako langileak dira.

Laster batean gure artera bizitzera etorriko diren auzotarrak guztia prest izateko, lanak amaitzen ari dira.

Eta gero zer egingo dute? Izango al dute lanik, krisialdi madarikatua dela eta? XXI. mendeko lehen izurriteak bete betean harrapatu baititu langile asko. Eraikuntzakoak lehenengo, baina orain, alor oso desberdinetako enpresetara zabaldu da. Gure artean dugu izurritea, hezurretaraino sartu, saldu eta sinistarazi digute. Baina zenbateraino da egia saldu nahi diguten mezua?

Ia 2009ak auzokide berriekin batera, benetako edo fikziozko izurrite horren eta haren eragileen aurkako botika ekartzen digun; guztion eskuragarri egongo ote da ordea? Akabatuko al dugu izurritearekin? Gorde indarrak, eta eutsi! Urte berri on!



ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Kukurrukukurruku...



Aurtengo gabonak ere iritsi dira, eta Aurtero bezala ere hasi dira gabon kantak gora eta behera. Ostiraleroko entseguak hasi dira, beno orain dela bi aste hasi ziren.

Lehenengo egunean oso jende gutxi azaldu zen, baina bigarrenagoan jende gehiago elkartu ginen, hala ere gutxi.

Zazpiretan bildu ginen lokalean, eta baita puntual hasi ere. Ondoren, borobil bat osatuz, bakoitzak bere paperak eskuan zituela eta ahotsak afinatuz, kantatzen hasi ginen: Din-dan-don, din-dan-don, Eguberri On ... Horrela, paperetako kanta guztiak pasa genituen, baina batzuk oso ondo ez zirenez atera berriro kantatu genituen. Berriro ere iritsi ginen amaierara eta horrela bukatu genuen: oilarrak kanta kantari, kukurrukukurruku, kale-tik han dabilta... (eta gainera hau dena koreografia eta guztirekin, eta koreografia hau egiten zutenak gehienak gurasoak). Azkenik, ostirala umore onez amaitzeko, Alamandegitik bueltatxo bat eman eta etxera.

Ez dakizue, zein ondo pasatzen den giro honetan murgildurik zaudenean. Ni beti gogoz egoten naiz egun



hauek iristeko. Beraz, animatzen bazarete badakizue non ikusiko garen ostiralean, frontoi atzeko lokalean. Eta ez bagara ikusten ondo pasa eta Urte Berri On denei! Eta noski txintxo portatu, bestela Olentzerok ez du ezertxo ere ekarriko!

AGINAGA

AITOR HELETA

Ludoteka



Bi hilabete pasa dira eguzki izpirik ikusi gabe, euria, haizea eta hotza, egoera zaila da, are zailagoa ume txikiak ditugunontzat. Irtenbide bezala Aginagan ludoteka daukagu, goxo goxo eta lagunartean egoteko aukera paregabea.

Laister Olentzero berriz gurekin izango da, eta beste gehiegikerien artean etxeak berriz ere jostailuz beteko dira. Hemendik gonbita egiten dizuet, etxean erabilpenik gabe eta egoera onean dauden jostailu eta ipuinak ludotekara eramateko.

Beste aldetik Antxomolantxatik urtero bezala gabonetako hurrengo ekintzak antolatu ditugu. Abenduaren 22an Donostiako Aieteko parkera irteera arratsaldeko 15:00etan, bertan zuhaitz mota ezberdinei buruzko azalpenak jasoko ditugu eta eguraldiak ez badu laguntzen Izotz jauregira arratsalde pasa joango gara. Abenduaren 27an, arratsaldeko 17:30ean ludotekan "Haran sorginduen bila" marrazki bizidunetako pelikula eskainiko da eta azkenik urtarrilaren 2an ludotekan "Oz-eko aztia" umeentzako antzerkia arratsaldeko 17:30ean. Ondo pasa!

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Informatizatzeke garaia

Badoala urtea edo hobe esanda joan zailgula jada, konturatzerako *Txin txin* eta *Urte berri on* esaten egongo gara! Baina urtea aurrera doan bezala munduaren beste ikuspegi bat hartzen goaz eta garrantzitsuena esperientzia ikaragarri eta aberatsa; esan diezaiotela bestela zeozer gu baino jende helduagoari. Bada hala ere unibertaski lotzen gaituen zeozer "Internet" deritzona eta egia esan sekulako inbentoa dela iruditzen zait, geroz eta jende helduagoak prestatzen dira mundu zibernetan nabigatzeko eta bere bizitzan ordenagailu bat ukitu ez duena ere hor dabil zeozer egin nahian, kurioa benetan. Bada hala ere azken aldian jende guztiaren ahotan dabilen "Facebook" deritzon orria, edozein puntuan bizi izanagatik eta ez dakit zenbat denbora inongo kontakturik izan gabe dituzun lagun edo ezagun edo nahi duzuna bilatzeko aukera ematen dizun webgunea da berau.

Ikaragarria da, abiada handian doa, eta denok tren handi hori hartu edo ez hartu zalantzan ibiltzen garen arren neurria hartu behar da denean bezala.

Norbaitek interesik badu ni bertan alta emana nago eta bilatzea besterik ez duzue! Ondo etorriak izango zarete guztiok.



Artzabal, adinekoen biltoki ederra

Barruan egoteko giroa izan arren, ez ziren gutxi izan pasa den abenduaren 12an Gure Pakea Jubilatuen Elkartek Artzabalen duen egoitza berriko inaugurazio ekitaldira gerturatu zirenak. Udal ordezkari, eta elkarteko kideek, dantzari eta trikitilarien laguntzaz plaka berriari estalkia kendu eta txalo artean, ongi etorria eman zioten atarian bertaratutakoei. Gizarte Zerbitzuei lotutako eskaria handitzen ari dela eta, bide horretan lanean dihardutela gogoratu zen Udalaren aldetik. Gure Pakeatik aldiz, egungo eta aurreko udal gobernu taldeek egindako lana eskertu nahi izan zuten.

Adinekoen kolektiboa gizarte mailan bezala, Usurbilen ere handitzen ari da. Baita ondorioz, haien beharrak eta baliabide eskaerak ere. Aurrera begira izan ditzaketen erronkei aurre egiteko ordea, jada tamainako gunea dute; garai bateko Artzabal eraikin eraberritua. Ireki zutenetik aste batzuk igaro diren arren, ofizialki pasa den abenduaren 12an inauguratu zuten.

Bertan bildu ziren hainbat udal ordezkari, herritar, eta nola ez, Artzabalgo eraikin berriko erabiltzaile nagusiak. Dantzarien aurre esku, bertso saio eta bertaratutakoen txalo artean, Gure Pakea Jubilatuen Elkarteko lehendakari orde Tiburtzio Arrutik eta alkate Xabier Mikel Errekondok estalkia kendu zioten Artzabal izena daraman eta elkarteko atarian kokatuta dagoen plakari. Inaugurazioa modu horretan irudikatu zuten.

Ekitaldia, giro ederrean, tabernan prestatu zuten luntx eder baten bueltan amaitu zen. Eraikin berriaren barruko gozotasunean. Kanpoan ez zen eta giro.



UDAL ORDEZKARIAK, GURE PAKEAKO KIDEAK ETA HERRITAR UGARI BILDU ZIREN ARTZABALEN, INAUGURAZIO EKITALDIAN.

Herri gunean

Adierazpenen tartean, alkateak gizarte zerbitzuen alorreko eskariaren gorakada geroz eta handiagoa dela nabarmendu zuen. Bide horretatik lanean dihardutela aipatu zuen. Eguneko Zentroa zabalik dago, etxez etxeko laguntza abian, Artzabalgo eraikina inauguratuta... Hurrengo erronka, Udaletik eta Gure Pakeatik adierazi bezala, adinekoen erresidencia izan liteke.

Adinekoen biltoki

Baina egun horretako protagonista nagusi den eraikin inauguratu berrira itzulita, kokagune berriak integrazioaren alde egindako apustua bete nahi duela aipatu behar da. "Herri gunean txertatuta", adierazi zuen alkateak. Hartara, adinekoen biltokia adin tarte zehatz bateko herritarrena soilik ez, gune irekia izatea nahi dute. Herritar guztiek parteka deza-

keten tokia, nahiz ulergarria denez, lehentasuna bazkide adinekoek izan.

Zerbitzu ugari

Elkarteko lehendakari orde Tiburtzio Arrutik egungo eta aurreko udal gobernu taldeak egindako lana eskertu zuen eta baita eraikin historikoaren gaur egunera arteko errepasoa egin ere. Lanak eginda, kanpotik itxuraldatuta ikus baitezakegu Artzabal. Eta barrutik zer esanik ez. Sarreran, taberna eta mahaia. Igogailu bat gainerako pisuetara heltzeko; bertan, zerbitzu anitz eskaintzen dira. Hainbat ikastaro ere abian dituzte.

Eraikin inauguratu berriarekin amaituko dute 2008 hau. Datorren urtea aldiz, batzar orokor batekin hasiko dute. Bertan erabakiko dira, Gure Pakeatik 2009rako abian jarri nahi diren egitasmo ugari. Batzuk dagoeneko abian dira; hala nola, Esperientzia Eskola.

Kalezarren, kaxkoa trafikorako itxita

Belmonte Auzo Elkartek, abenduaren 19tik aurrera, Kalezar auzoko kaxkoa jaiegunetan eta asteburuetan itxi egingo dela jakinarazi du.

Jaiegunetan eta asteburuetan, ostiraleko 18:30etik asteleheneko 19:30era, itxita egongo da trafikoa bai bertakoentzat eta baita kanpokoentzat ere, hala jakinarazi da.

Bide batez, Kalezarren osatu den elkarte berak adierazi duenez, "auzokoentzat izan ezik, astegunetan kaxkoa trafikorako itxita dagoela" gogorarazi nahi du.

Tiburtzio Arruti, Gure Pakea elkarteko lehendakari-ordea

"Egoteko nahikoa leku dago, gune lasaia da"

Amaitzear da urtea, aldaketa askoko urtea Gure Pakea elkartekoentzat. Batzar berria osatu dute, egoitza berria estreinatu... Urte borobila amaitzeko, baina datorrenari begira dira dagoeneko, lehendakari-orde Tiburtzio Arrutik dioenez.

NOAUA! Gune berriak zer moduzko harrera izan du erabiltzaileen artean?

Tiburtzio Arruti. Oso ona. Urriaren 24an ireki zen. Lunch bat antolatu genuen. Jende mordoia etorri zen. Egoteko nahiko leku dago, gune lasaia da hitzaldiak eman eta bideoak ikusteko, eskulanetarako... Duen gauzarik onena, aldamenen, ez duela enbarazurik, paseatzeko leku ederra baizik. Aldapa txikia bai, baina koskarik ez. Hori adinekoentzat oso ona da, ez du preziorik.

N. Eraikina eta bertako bizitza ezagutzen ez dituenarentzat, egiguzu aurkezpena.

T. A. Jatetxea lehen solairuan. Bigarrenen, ile-apaindegia, podologoa, gure bulegoa, hitzaldi eta proiektioetarako areto eder bat. Ganbara dugu jokorako, irakurtzeko liburu dezente dago, telebista ikusteko... Gauza ederrenetako bat, behetik hasi eta goraino tenperatura bera dagoela. Bestalde, martxan dira memoriaren tailerra eta esperientzia eskola, yoga ikastaroa orain hasiko da. Oraindik aurrera begira proiektu asko dugu egiteke. Gu sartu berriak gara eta egoitza zaharretik berrira etorrira dena kolpekoea izan denez, pixkanaka gauzatuko ditugu.

N. Eraikin berriarekin, integrazioaren aldeko apustua egin nahi izan da?

T. A. Egoitzan zenbat eta herritar gehiago ibili, orduan eta aberatsagoa izango da. Bizitasuna ematen dio

egoitzari. Tartean, urtero bost euro ordaintzen dituzten bazkideak daude, beren eskubideekin. Zenbat eta sozio gehiago izan, gaur edo bihar laguntzak eta gauzak egiteko beste indar bat egongo da.

N. Zenbat bazkide zarete?

T. A. 564 lagun sozio gaude. Azkeneko bi edo hiru hilabete honetan, 35 bazkide berri egin dira. Asko, baina orain urte bukaeran gaude. Aurten jada ez dago egiterik, pausoa ematen duenak orain 2008ko kuota ordaintzen baitu.

N. Batzarra ere berritu duzue?

T. A. Batzar orokorra urtarilaren 26an egin zen. Presidenteak utzi behar zuen, baina inor ez zen animatzen. Lehengo batzarkideak jendea bilatzen aritu ziren. Zortzitik zazpi berriak gara, bat lehen presidente egondakoa. Berriok dena gure kargu ezin genuen hartu, horregatik egungo bere presidenteak bere burua aurkeztu zuen. Zortzikoa osatu genuen eta horrekin jarraitzen dugu. Bi urtetik behin berritzen dira karguak.

N. Zeintzuk dira zuen erronka nagusiak epe motzera?

T. A. Berri samarrak gara, baina datorrenean aurtengo urtearekin lotuta joan nahi genuke; irteera eta ekitaldi aldetik, jokoak martxoa aldean... Lehengo haritik jarraitu nahi genuke. Pixkanaka egiten joango gara. Orain, datorren urterako aurrekontua egiteko garaia dugu.

N. Aldaketa askoko urtea izan baituzue?

T. A. Kolpe samarrera etorri da guztia. Etxe berrira joan gara, eta dena polita iruditzen zaigu. Baina orain bizitzen jartzen zaren garaian, badakizu, hau hemen jarriko bagenu, beste hura han... Guretzat dena berria da. Datorren hilaren amaiera



564 BAZKIDE DITU GURE PAKEAK, AZKEN HILABETEOTAN 35 BAZKIDE BERRI EGIN DIRA.

aldera, urtero bezala, batzar orokorra egingo da.

N. Adinekoen sektorea nabarmen hazten doa. Nabari duzue?

T. A. 58-60 urterekin asko gazteak dira, baina aurre jubilatzen dira. Guk geuk, adineko bat dugu presidente gisa dagoena. Gainerakoan, 67 urte ditu beterranoenak, gainerakook 60 urte inguru ditugu.

N. Beharrak handitzen doaz. Zein dira detektatzen dituzuenak?

T. A. Guk oraindik bost hilabete daramatzagu batzarrean, ezin dugu balorazio askorik egin. Herrian ikusten dudana zer da? Erresidentzia behar dela. Usurbilgo jendea herritik kanpoko erresidentzian dago. Eta zain daudenak ere ba omen daude, kalean entzun izan dudanez. Eskaera baldin badago, interesgarria litzateke hemen egitea. Adinekoak geroz eta gehiago izan eta gazteago jubilatzen gara. Bizimodu luzeagoa denez, haiei ere irtenbideren bat bilatu behar zaie.

Bus-taxia, martxa onean eta erabiltzaile gehiagoren zain

Udalak eta Behemendiren arteko elkarlanak bultzatuta, landa ingurunea Kaxkoarekin lotzen duen bus-taxi zerbitzuak bere lehen hiruhilekoa osatu du. Balorazio baikorra egiten du gidari Maribel Jorge herritarrak; gustura dabil lanean, eta gustura baita, bus-taxiko erabiltzaileak ere. Hala ere, gidariak ibilgailua baliatzera deitzen ditu, landa-eremuan bizi, garraio beharra izan eta oraindik bus-taxira igo ez direnak. Eguberrietan, astelehenetik ostiralera eskaintzen den zerbitzua ez da etengo, baina aldaketak izango dira jai egun eta bezperatan.

Urria hasieratik landa-eremuan bizi denak gertuago du herri gunea, errazago bertara iristeko bidea eta beste inorekiko mendekotasun gutxiago herri gunean egin beharrekoak egiteko. Udalak eta Behemendik elkarlanean martxan jarritako bus-taxi zerbitzuak bi eremuak lotu eta hurbildu ditu.

MARIBEL JORGE, GIDARIA

“Eguneko, bataz beste, 14 herritar dira bus-taxia erabiltzen dutenak”

Bus-taxiko gidaria oso gustura dabil bere lanean eta baita ibilgailura igotzen diren herritarrekin ere. “Oso jatorrak eta esker onekoak dira”, adierazi du Maribelek. Erabiltzaileek egiten dituzten komentarioen artean, aipagarria oraingo egoeraren eta bus-taxirik ez zegoen iraganaren artean zer nolako aldea ikusten duten. “Independenteak izateko aukera dute. Orain herri gunera joateko inori ez diote deitu behar”, zehaztu du Maribelek. Baina goizez zerbitzua indartzen bada, hobeto. Batek baino gehiagok helarazi dio gidariari, eguerdiko 13:00ko zerbitzua baino ordu batzuk lehenago, goiz erdian edo, itzulerako bidaia egiteko bus-taxia izateko beharra.



LASTER IBILGAILU BERRI BATEK BETEKO DU BUS-TAXIAREN FUNTZIOA.

Landa-eremuan garraio alorrean hutsunea zegoela argi geratu da, ekimenak izan duen harrera ikusita.

Ibilgailu aldaketa

Landa-eremutik barrena ibiliko den ibilgailu berri eta egokitua bidean izango da honez gero. Aste hasieran aldatzekoak ziren orain arte erabilitako ibilgailua. Auto berria handiagoa da, hamalau herritarrentzako lekua baitu eta behar duenarentzat igogailu bat ere badu.

Eguneko bataz beste hamalau bat herritarrek erabiltzen dute bus-taxia, baina bidaia bat baino gehiago autoa topera zuela ere egin du Maribelek. Garraibide berriko erabiltzaile profil garbi bat atera liteke; 50 urte ingurutik gorako emakumezkoa, asko Santuene aldean bizi direnak. Bus-taxiko eguneko azken bidaia, eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten zenbait gazte-txok ere baliatzen dute. Hain zuzen, goizean goiz bus-taxiak egin ohi duen eguneko lehen bidaian eta azkenekoan, iluntzekoan izan ohi du bidaiari kopuru handiena. Ibilgailurik izan ez eta landa-eremutik herri gunera ailegatzeko etxeko beharra duen herritar asko dago beraz. “Medikuarengana edo erosketak egitera doazenak gehienak”, adierazi du bus-taxiko gidariak.

Behar izanda, etxe atariraino

Ordubetez herri osoa zeharkatzen du bus-taxiak. Usurbil, Kalezar, Arratzaindik barrena, Aginagara, Txokoalde, Urdaia eta Santuenea. Handik Kaxkora itzuli eta gero, Zubieta eta Txikierrera, berriro hasierako puntuan amaitzeko. Zehaztuta dagoen ordutegian etxetik gertu gelditzen den geltokira ailegatu ezin duenak, aldeztu aurretik Maribel Jorge deitu eta kito. “Bere etxeraino joango naiz”, dio Maribelek. Bus-taxiko gidaria etxeraino gerturatuko zaizu. Baina horretarako aldeztu aurretik jakinarazi behar zaio gidariari: 630 64 35 96 (bus-taxi zerbitzua doakoa da).

Aldaketak, eguberrietan

Gabonak direla eta, zerbitzuan Gegokitzen izango dira datozen asteotan. Abenduaren 24an eta 31n eguneko lehen bi zerbitzuak eskainiko dira eta Errege egun bezperan, ez da zerbitzurik izango:

Abenduak 24 / 31

Ordutegia: 7:30-8:30 / 13:00-14:00 (Bazkalosteko eta iluntzeko zerbitzurik ez).

Urtarrilak 5, astelehena

Zerbitzurik ez egun osoan.

Konpostajea, lurrari dagokiona itzultzea

Etxean guztiok sortzen dugun hondakinen zati organikoa ongarrian bihurtu daiteke. Bizilekutik bertatik mugitu gabe, konpostagailu batekin. Baina nola egin? Hitzaldi bidez, argibideak ematera etorri berria da Sutegira Albert Piqué, alor honetan ezagutza handia duen kataluniarra. Metodo eraginkor, aurreztaile eta garbi gisa definitzen du konpostajea. Landa-eremuko zein etxean lore tokiren bat dutenak hondakinen zati organikoa birziklatzera animatzen ditu. Gogoratu, Udalak iragarri duenez, konpostajea etxean egiten dutenei %40-ko hobaria aplikatuko zaie hondakinen tasan.

NOAUA! Zer modutan defini liteke konpostajea?

Albert Piqué. Hondakina sortu den leku berean tratatzen duen kudeaketa teknika bat da. Konpostajea ez da ezer berririk asmatu. Aspalditik baserrietan egin izan ohi dena egitea litzateke.

ALBERT PIQUÉ

“Ingurumenarekiko arazoa norbere etxean hasten da. Beraz, konponbideak ere norbere etxetik hasi behar du”

Lurrari, dagokiona itzultzea. Modu horretan, diru publikoa, energia eta baliabideetan aurreztu liteke, eta CO2 gutxiago sortu. Oso modu eraginkorrean, mundu jasangarriago bat sortzen lagundu dezakegu. Etxean loretokia dutenen zati garrantzitsu batek konpostajea egingo balute, aurrerapauso oso garrantzitsua litzateke. Konpostajea kontuan izanda, beste alternatibek ez dute ez buru ezta hankarik ere.

N. Konpostaje on baterako giltzariak zeintzuk dira?

A. P. Lore toki bat izatea eta bertako zein sukaldeko hondakinak kudeatzea. Konpostajeak oso denbora gutxi eskatzen du. Gauza gutxiarekin, guztia egiten da. Herritarrak hasieran behar duena informazioa da. Hortik aurrera, naturak



ASTE HONETAN KONPOST KONTUETAN ADITUA DEN ALBERT PIQUÉ IZAN DA HITZALDIA ESKAINTZEN.

egin dezala bere lana.

N. Zati organikoan, sukaldean erabiltako zein gordinik dauden gaiak nahas ditzakegu?

A. P. Halakorik ezin dela egin dioenak, konpostaje prozesua ezagutzen ez duen seinale. Hemen, eskola askotan baratza ekologikoa dute eta zati organikoa eskolan bertan kudeatzen dute. Sukaldean prestatutako janaria, frijitutakoa... inolako arazorik gabe tratatzen dute. Oso ondo kudeatzen ari dira, eta atsegin handiz, irakasle eta gurasoen elkarrekin jakinarazten dutenez.

“Usain txarrik ez”

N. Usain txarrik ez gainera?

A. P. Usain txarra sortuko balu, herritarrek konpostagailuak udaletxera itzuli lituzkete. Ez du usain txarrik sortzen. Kimikoki dagoen nahasketa proportzionala da. Efektu bitxia du gainera; konpostatzeak tenperatura igotzea ekartzen baitu. Eta horrek usain txarra sortzea saihesten du. Hala, konpostagailura botatutakoa denbora gutxian eraldatu egiten da.

N. Konpostajeak harrera ona izan du beraz, zuen lurraldean?

A. P. Aldez aurretik, inolako publizi-

taterik egin gabe herritarren ehuneko hamar edo hogeia gutxienez, beti egiten dute konposta. Lehen urtean, berrogei etxebizitzetan konpostagailua jartzea espero genuen udalerriri batean, urtebete tartean 109 jarri genituen. Konpostajearekin, lore tokia kudeatzea askoz errazagoa da. Jartzen dutenek, gero, ahoz aho zabaltzen dute. Eraginkorra da eta.

N. Etxean konpostajea egiten duten herritarrei hobariak aplikatuko zaizkie Usurbilen. Zuenen ere hala al da?

A. P. Lehen kanpainatan beti gauza bera esaten ziguten. Birziklatzen ez zuen batek eta ondo egiten zuen beste batek zergatik ordaindu behar zuten tasa bera. Justua da norbere ardura ondo betetzen duenei modu berean erantzutea.

N. Hondakinen ardura denona da eta?

A. P. Askok esango dute zaborren tasa ordaintzen dutenez, ez zaiela axola. Aldiz, norberak gauzak ondo egiten ez baditu, badaude diruak konpontzen ez dituen gauzak. Ingurumenarekiko arazoa norbere etxean hasten da. Beraz, konponbideak ere norbere etxetik hasi behar du. Konpostatzen etxetik hasi behar da.

San Markos eta Udalaren arteko lankidetzak hitzarmenari baiezkoa eman dio udalbatzak

Mankomunitatearen eta Udalaren arteko elkar-lana bultzatuko duen lankidetzak hitzarmena sinatzearen alde agertu zen udal ordezkarien gehiengoa, pasa den abenduaren 10eko ezohiko osoko bilkuran. Hamar urterako sinatuko da eta hondakin kudeaketa sistema berriari lotuta, bilketa eta tratamenduari lotutako ardurak partekatuko dituzte bi erakundeek.

Hondakinen atez ateko bilketa sistema berria otsaila amaieran martxan jartzea espero da. Egun, ezagunak zaizkigun kaleko ontziak desagertu eta hondakinak zatika egunero atariz atari biltzen hasi aurretik ordea, aurrera jarraitzen dute prestakizun lanek. Bide horretan, beste urrats bat eman berri du udalbatzak; gaikako bilketa modu hau sustatzeko San Markos Mankomunitatearen eta Udalaren arteko lankidetzak hitzarmena sinatzeari baiezkoa ematea. Gobernu taldeak, Aralarrek eta EAJ-PNV-k babestu zuten testua, abenduaren 10ean burutu zen ezohiko osoko bilkuran. EA-k aurka bozkatu zuen.

Nahastuta biltzen den zaborra murriztea da helburu nagusia. Horregatik, bi aldeek hondakinak kudeatzeko modua aldatzea beharrezkotzat jotzen dute. Mankomunitate mailan martxan jarri nahi den esperientzia pilotuko udalerrri bihurtzeko

konpromisoa hartzen da, gerora, hemen abian jarritakoa beste udalerrietara hedatzeko.

Ardurak partekatzen

Udalaren ardura izango da zati organikoa konpostatzeko planta eraiki eta kudeatzea eta aldi baterako laguntza eskaintzea halako esperientziak martxan jarri nahi dituzten gainerako udalerriei. Baita atez atekoaren nondik norakoen berri ematea ere Mankomunitateari. Eta honako inbertsioak ere Udalaren kargu; konpostatze plantaren nabea eraikitzea, lursailaren urbanizazioa eta proiektu horren lizentzia eta izapideak.

Mankomunitateak bere aldetik, aholkularitza eman eta biltzeko aginpidea itzuli beharko dio Udalari. 2009. urteko ekitalditik aurrera, hiri hondakinen bilketa eta tratamendu kostuak zerbitzu horiek eskaintzen dituzten udalerriei egotzea eta zati organikoaren tratamendu sistemak ezartzeko zenbait inbertsioen ekarpena egitea, San Markosen beste zereginetako batzuk izango dira.

Atez atekoa martxan jarri artean, gaikako bilketa zerbitzua ematen jarraituko du Mankomunitateak. Herriko kaleen itxura aldatuko duen ardura berezi bat ere bere gain hartuko du; atez atekoa martxan jarri aurreko gauean, beirarena ez beste ontziak kaletik kentzea. Inbertsioen atalean bere ardurapean geratuko dira; konpost planta barruko eta albo-



10 URTEKOA IZANGO DA HITZARMEN BERRIA.

ko instalazioak eta esperientzia pilotua zabaltzeko ingurumen-ikaskela.

Udalak eta Mankomunitateko hiruna ordezkariak Jarraipen Batzordea osatu eta hilerio bilduko dira. Hitzarmena hamar urtetarako sinatu da, gerora urtero luzagarria izango dena.

Ordenantza aldaketa

Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza behin betiko onartu zuen udalbatzak, gobernu taldearen, Aralarren eta EAJ-PNV-ko udal ordezkarien aldeko botoekin. EA-k aurka bozkatu zuen. Beraz, orain artean indarrean zegoen hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamenduaren ordenantza aldatuta gertatu da.

Bestalde, Gipuzkoako Hiri Hondakineterako Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren hasierako onepenenari alegazioak aurkeztu dizkio Udalak.



Kimasajek

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



www.noaia.com

USURBILGO ATARIA

Usurbil Atez Ate SA sortzeko urratsak eman dira

Merkataritzako sozietate bat sortuko da, hondakinen bilketa, tratamendu eta aprobetxamendua zuzenean kudeatzeko; Usurbil Atez Ate SA izeneko. Gobernu taldetik jakinarazi dutenez, sozietatearen ardura goren udalbatza osatzen duten hamahiru udal ordezkari izango lukete. Zabor bilketa zerbitzua hobetu, hondakinak murrizteko baliabideak jarri eta birziklapena zein berrerabilpena bultzatzea izango dira eratuko den sozietate berriaren zeregin nagusiak.

Alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioak biltzen dituen memoria eta sozietatea arautuko duten estatutuak hasieraz onartu zituen udalbatzak abenduaren 10eko ezohiko osoko bilkuran. Alde bozkatu zuten udal gobernu taldeak, eta EAJ-PNVk. Aurka aldiz, EAK. Aralar abstenitu zen. Aurreratu zuten, onartutakoa jendaurrean jarri eta ekarpenak egiteko tarte zabalduko da. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, 30 egun naturaleko epea hain zuzen.



WWW.USURBIL.NET/ATEZATE
WEB GUNEAN AURKITUKO DUZUE
KONPOSTATZEKO GIDA HAU.

2009ko Ordenantza Fiskalak behin betiko onartuak izan dira

Gobernu taldea eta Aralarren babesarekin onartu dira behin betirako datorren urterako Ordenantza Fiskalak. Alegazioak aurkezteko epea igarota, jasotako hirurak aztertu dira. Haietako bat partzialki onartu da, Kontsumo Prezioen Indizeari (KPI) lotuta herritar batek egin duen eskaera hain zuzen. Datorren urteko ordenantza fiskalei, %4ko KPI igoera aplikatzea

proposatzen zuen. Azken aldian KPI-ak izan duen eboluzioa aintzakotzat hartuta, udal gobernu taldeak proposamen hura onartzea planteatu zuen. Aralar abstenitu zen eta EA-k zein EAJ-PNV-k aurka bozkatu zuten. Babes zabalagoa jaso zuen autokonpostatzea bultzatzeko beste herritar batek egindako eskaerak. Denak alde, EA izan ezik, aurka bozkatu baitzuen.

Hilerri berriko 5. lotea, esleitu

Sei hilobiko panteoia eta beste hilobi sbat esleitzea aho batez onartu zuen udalbatzak. Pasa den ekainaren 24an burututako bilkuran erabaki zen bosgarren loteko hilobien gaineko eskubideak emakida administratiboaren bidez esleitzeko oinarriak onartzea. Gerora, eskubideak aurkezteko deialdia burutu zen. Orain, bosgarren loteko hilobiak nori emango zaizkion adostu ostean, erabakia berri emango zaie esleipendunei.

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA
Juan Jose enca, 6 Kalejar
Telf: 606 37 21 05


ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

Abenduaren 28an, pilota festa

Infantil Txapelketa jokatu da abenduaren 27an kiroldegian

Abenduaren 28an igandea, Buruntzaldea osatzen duten herri guztietako pilota elkarteek pilota festa antolatuko dute. Usurbil, Lasarte, Hernani, Andoain, Urnieta eta Astigarraga dira pilota festa honetan parte hartuko dutenak. Helburua, eskualdean pilotak azken urteetan hartu duen indarra azaltzea eta aldi berean eskualdeko pilotari, entrenatzaile eta pilotazaleek, pilota oinarri hartuta jaigiroan bat egitea egun batez. Buruntzaldeko jubenilen partidak Usurbilen jokatu dira.

Abenduaren 28ko festan, eskualdeko pilotari guztiek jokatu dute goizez (ia 500 pilotari). Eta arratsaldean goi mailako pilota partida antolatu da Hernaniko kiroldegiko frontoian.

Usurbilen Buruntzaldeko sei herri hauetako jubenilak ikusteko aukera aparta izango dugu. Abenduaren

28an, beraz, pilota partida ugariz gozatzeko moduan izango gara.

Puntako jaialdia Hernanin

Goizez Buruntzaldeko pilota elkarteetako pilotariak izango dira protagonistak. Arratsaldean, ordea, puntako jaialdia egingo da Hernaniko Kiroldegiko frontoian. 18:00etatik aurrera, pilotari hauek arituko dira aurrez aurre:

Saralegi - Oteiza
Mendizabal I - Argote
Olaizola II- Mendizabal II
Berasaluze VIII - Begino

Sarrerak salgai

Hernanin egingo den pilota jaialdi honetarako sarrerak edonorentzat izango dira salgai. Prezioak hauek: eserita, 30 euro. Zutik, 15 euro.

Usurbilen sarrerak Txiriboga eta Bordatxo tabernetan egongo dira salgai.



HERNANIKO JAIALDIRAKO
SARRERAK TXIRIBOGAN ETA
BORDATXON JARRIKO DIRA SALGAI.

Pilota eskoletako pilotariek sarrera doan izango dute.

Larunbat honetan jokatu da elkarte arteko XI. Mus Txapelketaren finala

Azkeneko hamar urteetan bezala, aurreko ere mus txapelketa batek lotuko ditu herriko bederatzi elkarteak. Urtez urte ekimena antolatzeko ardura elkartearen artean txandatzeko dute eta hamaikagarreneko xehetasunak lotzeaz Eguzki elkartearen arduratu da.

Lehen fasea elkarte bereko bazkideen artean jokatu da, eta elkarte bakoitzeko bi bikote onenek final handirako txartela eskuratu dute. Finala larunbat honetan jokatu da Eguzki elkartearen, 17:00etatik aurrera, eta hauek dira azken norgehiagokara ailegatu direnak:

AGINAGA: Patxi-Joxemiel eta Abbat-Alberto.

AITZAGA: Albaro-Potros eta Arkaitz-Xabier.

ANDATZPE: Miguel Mari Borda-Mikel Ibarreta eta Iker Arrillaga-Iker Agirrezabala.

EGUZKI: Lozano-Gabriel eta Taersicio-Cañibano.

ERROIZPE: Aitor-Jose Mari eta Arkaitz-Mirotz.

IBAI ONDO: Enrike Uli-Muñoa eta Hilario-Moisés.

MAHASPILEGI: Koldo Lertxundi-J.M Letxundi eta Juanjo Lertxundi-Inaxio Arruti.

PEÑA PAGOLA: Angel-Rufino eta Ander-Esteban.

YOKO GARBI: Jose Antonio Arroyo-Mikel Arroyo eta Imanol Aizpurua-Eneko Izagirre.



EGUZKI ELKARTEAN JOKATUKO DA
MUS TXAPELKETAREN FINALA.

Bestalde, Mus Txapelketako antolatzaileek txapelketa honetan lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete: Aginaga, Aialde Berri, Alamandegi, Antxeta, Araeta, Atxega, Barazar, Bordatxo, Iruin, Maykar, Olarrondo, Patri, Saizar, Saltxipi, Sekaña, Txitxardin Beltz, Urdaira eta Usurbilgo Udala.

Mirotzen oroimenez

Infantil Txapelketa jokatu da abenduaren 27an kiroldegian

Oso gazte joan zen Mirotz. Baina bere lagunak eta Usurbil KE eskubaloit taldeak gogoan izan nahi dute bereziak diren egun hauek. Abenduaren 27an, Euskal Herriko infantil mailako neska zein mutil talde esanguratsuenek txapelketa jokatu dute Oiardo kiroldegian: Zumaiako Pulpo, Arabako selekzioa, Zarautz, Nafarroako selekzioa, Loiola (Gipuzkoa, mutilak) eta Kukullaga (Bizkaia, neskak).

Nesken mailan sei talde lehiatu dira eta, mutiletan, beste horrenbeste. Denak infantilak. Abenduaren 27an larunbatarekin jokatu da Mirotzen oroimenezko eskubaloit txapelketa. Lehen partida goizeko 9:00etan hasiko da eta azkenekoa arratsaldeko 19:00etan.

Partidu bakoitzak 10 minutuko bi zati izango ditu, tartean 5 minutuko



SARI BANAKETAN BENITO MUJIKARI ESKERRAK EMATEKO OMENALDITXO TXIKI BAT PRESTATZEN ARI DIRA USURBIL KE ESKUBALOI TALDEKOAK.

atsedenarekin.

Baina dena ez da lehia izango. Talde ezberdinak elkar ezagutzeko aukera ederra izango dute abenduaren 27an. Bazkaria ere antolatu baita. Agerialde

eraikuntzan izango da.

Sari banaketa garaian, Benito Mujikari eskubaloien alde egin duen lanagatik eskerrak emateko omenalditxo txiki bat prestatzen ari dira.

Eskubaloit taldeko errifetan sarituak



Usurbil KE eskubaloit taldeari diruz laguntzeko egiten dira errifak. Irudian dituzue azken irabazleak. Asier Makazagak afari bat irabazi du Patrín. Saria jasotzera, ordea, ezkerrean diren "ordezkariak" bidali zituen.



Eskubitar dagoena Ibon Borda. Honek Txitxardin Beltzan afaltzeko aukera izango du. Usurbil KEk Patri eta Txitxardin Beltzakoen laguntza eskertu nahi du, hala nola, jokoan parte hartzen duten herritar denek.

Spining ikastaroa Oiardo kiroldegian

Spining ikastaroak arrakasta handia izan du. Itxaron zerrenda handia denez, ikastaro berri bat antolatuko da kiroldegian, beti ere taldea osatzeko gutxiengo kopurua animatzen bada.

Ikastaroa astelehenetan eta asteazkenetan egingo da: 15:00-15:50.

Informazio gehiago kiroldegian.



IKASTAROA KIROLDEGIAN
ESKAINIKO DA.

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
06.55	>>	07.15	07.25	07.35	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.10	>>	08.35	08.45		07.45	07.55	08.05	>>	08.30
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.10	09.30	09.35	09.45		08.45	08.55	09.05	>>	09.30
09.40	>>	10.05	10.15	10.25		09.30	09.40	09.45	10.10
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		10.30	10.40	10.45	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25		13.30	13.40	13.45	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25		14.30	14.40	14.45	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25		15.30	15.40	15.45	16.10
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
17.40	>>	18.05	18.15	18.25		16.30	16.40	16.45	17.10
18.10	18.30	18.35	18.45		16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	17.45	17.55	18.05	>>	18.30
19.10	19.30	19.35	19.45		18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.40	>>	20.05	20.15	20.25		19.30	19.40	19.45	20.10
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05	21.15	21.25	21.35	21.40	22.00

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00	>>	01.25	01.35	01.45
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00	>>	05.25	05.35	05.45
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15	00.25	00.35	>>	01.00
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15	02.25	02.35	>>	03.00
03.15	03.25	03.35	>>	04.00
04.15	04.25	04.35	>>	05.00
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

* Eusko Trenbideak (ETB) berriz

* Eusko Trenbideak (ETB) berriz

* Eusko Trenbideak (ETB) berriz

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	* 14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
* 15.38	15.45	15.54	16.09	* 15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
* 16.38	16.45	16.54	17.09	* 16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
* 17.38	17.45	17.54	18.09	* 17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
* 18.38	18.45	18.54	19.09	* 18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
* 19.38	19.45	19.54	20.09	* 19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.40	22.46	22.55	23.10				

0000 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 0000 Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN
 * Astelehenetik eta Udako (09/06/22-09/09/14) larunbat, igande eta Jaiegunitan

Bezeroen arretarako bulegoa ☎ 902 54 32 10 www.euskotren.es i atcliente@euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Abenduak 18, osteguna
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Abenduak 19, ostirala
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 20, larunbata
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
 Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Abenduak 21, igandea
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Abenduak 22, astelehena
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Abenduak 23, asteartea
 Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Abenduak 24, asteazkena
 Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
 Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Abenduak 25, osteguna
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Abenduak 26, ostirala
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Abenduak 27, larunbata
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
 Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Abenduak 28, igandea
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 29, astelehena
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Abenduak 30, asteartea
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Abenduak 31, asteazkena
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
 Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
*Correa Farmazia (22:00-09:00),
 Perkaiztegi kalea, 8 Hernani
 Telefono zenbakia: 943 33 60 22
 Usurbilen, soilik eguerdina arte

TSST

autobusak

ZUBIETA • DONOSTIA

LANEGUNETAN
 Zubieta-Donostia 07:55(TV) 08:30(TV) 13:15(TV) 14:35(TV) 15:15(TV)
 Donostia-Zubieta (buzkara) 07:15(TV) 09:00(TV) 12:45(TV) 13:45(TV) 18:45

LARUNBAT ETAN
 Zubieta-Donostia 08:15(TV) 12:45(TV) 15:15(TV) 21:35(TV)
 Donostia-Zubieta (buzkara) 12:45(TV) 14:30(TV) 21:00(TV)

JAI EGUNETAN
 Zubieta-Donostia 11:25(TV) 13:30(TV) 15:30(TV) 21:35(TV)
 Donostia-Zubieta (buzkara) 11:00(TV) 13:00(TV) 15:00(TV) 21:00(TV)

* Eusko Trenbideak (ETB) berriz
 Bezeroen arretarako bulegoa ☎ 943 36 17 41

BUS-TAXI	ZERBITZUA	Ordua	Ordua
Usurbil	Kalea	7:50	13:00 15:30 18:00
Kalea	Kalea	7:52	13:02 15:32 18:02
Kalea	Kalea	7:55	13:05 15:35 18:05
Kalea	Kalea	7:58	13:08 15:38 18:08
Kalea	Kalea	7:42	13:13 15:43 18:13
Kalea	Kalea	7:45	13:15 15:45 18:15
Kalea	Kalea	7:48	13:18 15:48 18:18
Kalea	Kalea	7:55	13:25 15:55 18:25
Kalea	Kalea	8:00	13:30 16:00 18:30
Kalea	Kalea	8:03	13:33 16:03 18:33
Kalea	Kalea	8:05	13:35 16:05 18:35
Kalea	Kalea	8:10	13:40 16:10 18:40
Kalea	Kalea	8:12	13:42 16:12 18:42
Kalea	Kalea	8:14	13:44 16:14 18:44
Kalea	Kalea	8:17	13:47 16:17 18:47
Kalea	Kalea	8:22	13:52 16:22 18:52
Kalea	Kalea	8:27	13:57 16:27 18:57
Kalea	Kalea	8:30	14:00 16:30 19:00

Agenda !

Abenduak 18 osteguna

- "Txertoei buruzko informazioa", 17:00etan Sutegin.
- www.usurbil.net webgunearen eta Usurbil Zenbakitan lanaren aurkezpena, 19:00etan Sutegin.

Abenduak 19 ostirala

- Lore eta Ikatzek Olentzerorentzako gutunak jasoko dituzte, eguerdian kaxkoan.
- Pello Añorga ipuin kontalaria, 18:00etan udal liburutegian. HH3ko ikasleentzat.
- San Tomas Santuenean, 19:00etatik aurrera, txorizo dastaketa, jaiotzak eta lehiaketako postalak ikusgai.
- Go!Azen film musikala, 22:00etan Sutegin. Iraupena: 90 minutu. Gazteentzat, sarrera doan.

Abenduak 20, larunbata

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. Bi saio kiroldegian, 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak aldeztu aurretik 5 euro. Mahuka eta Bordatxon. Egun berean, 6 euro (12 hilabete arteko haurrek doan).

Abenduak 22, astelehena

- Donostiako Aieteko parkera irteera. 15:00etan Aginagako frontoitik irteera.
- The Upper Room gospel kontzertua 20:00etan Sutegin. Sarrera egunean bertan, euro 1.

Abenduak 23, asteartea

Haurrentzako zinea: Olentzero eta oparien ardua. 17:00etan Sutegin. Sarrerak: egunean bertan euro bat.

Abenduak 26, ostirala

San Esteban Txiki Eguna 11:00etan Urdaia auzoan.
Haurrentzako zinea: Kubo magikoa 17:00 Sutegin. 4 eta 10 urte bitartekoentzat. Sarrera egunean bertan euro 1.

Abenduak 27, larunbata

Haurrentzako zinea: Haran sorginduren bila. 17:30ean Aginagako ludotekan.

Abenduak 28, igandea

Txan Magoa 17:00etan Sutegin. Sarrerak, aldeztu aurretik euro bat kiroldegian salgai. Egunean bertan bi euro.

Abenduak 30, asteartea

Haurrentzako zinea: Ikasgela hegalaria. 17:00etan Sutegin. Sarrera aldeztu aurretik euro 1.

www.usurbil.net,

udaletxearen leihoa Interneten

Udal informazioa eman, berriak zabaltu, agendako ekitaldiak bildu... funtzio hori beteko du aurrerantzean usurbil.net webgunea. Ez hori bakarrik, udal tramitazioak egiteko aukera ere eskainiko du. Web orrialdearen aurkezpenean aipatzen denez, partehartzea sustatzeko asmoarekin abiatu da. Aste honetan egin da aurkezpen ekitaldia Sutegin.



ASTE HONETAN EGIN DA WEB ORRIAREN AURKEZPENA SUTEGIN.

Urteak dira webgune egoki baten premian zegoela Usurbilgo Udalak. Korporazioak joan korporazioak etorri, eta webgunearen arrastorik ez. Aste honetan egin da azkenean webgunearen aurkezpena. Orain edukiz hornitu eta partehartzeko bideak sustatzeko garaia da.

Udal zerbitzuekin harremanetan jartzeko informazio praktikoa biltzen du webgunea. Batzorde ezberdinekin harremanetan jartzeko bideak eta moduak, esate baterako.

Baliogarri diren beste hainbat atal ere badira: farmaziak, garraioa, telefono gida. "Usurbil ezagutzen" izeneko atalean "Turismoa", "Gida", "Kirol instalazioak", "Herria", "Ingurume-

na" loturak ere jaso dira.

Web guneak berak dioenez, udal informazioa zabaltzea izango da usurbil.net webgunearen helburua: "udalera iritsi berriak izan arren berehala ohartu gara usurbildarro informazioa helarazteko ditugun mugez. Horregatik, web orri hau tresna paregabea izango dela ziur gaude. Haratago, helburu nagusia Udal eta herritarrok modu interaktiboan jarduteko aukera sortzea da".

Informazioa zabaltzeaz gain, erabakiak herritarrekin konpartitu nahi dira: "erabakiak hartu aurretik eta ondoren, uneoro informazioa herritarrokin elkartrukatu eta hausnartuko dugu".

Urtezahar gauean, Larra Dj-ren saioa frontoian

Promesen gaua izan ohi da urtezaharrekoa. Erretzeari utzi, dietari ekin, kirola egiten hasi... Urte berriaren aurrean, datorren urteko 12 hilabeteetarako desioak adierazi ohi dira urte bukeran. Egin ez ditugunak zenbatu eta egin nahi ditugunak amesteko garaia izan ohi da.

Baina eguberriak, balantzeak egiteaz aparte, lagunekin eta etxekoekin ospatzeko egunak izan ohi dira. Urtezahar gaua bereziki. Larra Santueneko Dj-ak



alaituko du urtezahar gaua. 01:30etik 6:30era frontoian. Animo eta ondo pasa!

ETXEBIZITZA

- Bikote batek logela alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trasterlekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00tatik 21:00etara 649 261 704 telefono zenbakira.
- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserrir bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekua, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserrir bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. Bakarrik edo konpartitua. 625706912.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 32 metro karratuko garajea alokatzen dut. Garaje edo almaznen moduan ibiltzeko sarre-egokia. 943373481 / 943 37 34 14.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajearen egondakoa. 620625823.
- BMW 650F motorra daukat salgai. Egoera onean eta garajearen egondakoa. 666988050.
- Galtzaragainen 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Kamarera behar da Xarma tabernan, astean bi egunetan lana egiteko. 943368771.
- Txiribogan sukaldaria behar da, ostegunetik igandera. 699 451 082 (Arantxa).
- Antxeta jate txean kamarera behar da, astelehenetik ostiralera lan egiteko.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. 627278907.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Lan-eskaerak

- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, 646717676
- Mekanikari lanak egiteko edo baserriko lanak egiteko prest nago. 690261041
- Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo tabernari lanak egiteko ere prest nago. 608835033
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua

- utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska euskaldun bat behar da Kinkildegian lan egiteko. 609099824 / 943214508.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da, esperientziaduna. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Haurren geletako hormetan mota eta tamainu guztietako marrazki eta irudiak margotzen dira. Tamainuaren araberako kostua. Azkar eta modu onean. Enkargu berezietarako (tamainu handiak edo irudi asko) prezio bereziak. 607 42 44 97
- Talde bat osatzeko gitarrajole eta baxujole bila gabiltza: 620 431108 / 666 062312
- Azaroaren 18an giltzak galdu nituen Eguzkitzaldean. 635 701 374.
- Ostegun iluntzean, errealeko jertsea galdu nuen frontoian. Norbaitek bilatu badu, 686969112
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. 609 653 440. Itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Aritz egurrezko aulkiak salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

Zorionik beroenak, Ibai!
Abenduaren 15ean lehen urtetxoa bete duzulako eta tarta oinez ekarri diguzulako!



Zorionak MªJesus!
Abenduaren 23an gogoratuko gara zure urtebetzearekin. Zorionak eta muxu potolo bat zure ama eta familiaren partez Usurbildik.



Zorionak Maddi! Ze gutxi falta den abenduaren 24a iristeko!
Aurten 8 urte beteko dituzu. Ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat etxekoen partez!



Zorionak Imanol!
Abenduaren 18an egingo dituzu 14 urte eta zure amonak eta familiak ez dugu ahaztu. Ondo ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat denon partez!



Usurbilgo udala Hondakin biltzaile-kamioi gidarien lan-poltsa

Usurbilgo udalak, hondakin biltzaile-kamioi gidarien lan poltsa osatu nahi du, behin-behineko beharrak betetzeko. Eskaerak aurkezteko epea: 2008ko abenduaren 30a bitartean, hau barne. Oinarriak eta eskaera-orriak: Idazkaritzan eta www.usurbil.net web orrian.



ARTZABAL BASERRRIA

Artzabal

Egunerako menua 9€

Ostegunetik Igandera menu bereziak

Pintxoak: hotzak eta beroak

Kaxuelitak...





mahuka

arropa denda



943 36 11 06 Etxebeste 3, Usurbil